

KUTXA sarien banaketaren XXXVII. edizioa

2013/11/20

Joan den azaroaren 18an Kutxak karrera amaierako sariak eman dizkie Gipuzkoako lau fakultateetako espedienterik onenak dituzten unibertsitate ikasleei. Saritutako unibertsitarioak 2013. urte honetan bertan lizentziatu dira, eta Bolognako gradudunen lehenengo promoziokoak dira.

Kutxako karrera amaierako sari banaketaren XXXVII. edizio honetan egiaztapen diploma bana eta Iñaki Moreno Ruiz de Eginoren artistaren eskultura bana eman dira.

Aurtengoan, guztira 59 ikasle saritu dira, eta horietatik 10 Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikasleak dira:

- Iñaki Igartua Ugalde, Ingeniaritza Mekanikoko graduduna
- Mirari Egaña Aramberri, Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritzako graduduna
- Lierni Zabala Arrizabalaga, Industria Antolamenduko Ingeniaritzako graduduna
- Lorea Gorrotxategi Martinez, Industria Automatika eta Elektronikako Ingeniaritzako graduduna
- Leire Torres Benito, Informatikako Ingeniaritzako graduduna
- Iratxe Aizpurua Maestre, Industria Ingeniaritzako graduduna
- Myriam Soto Ruiz de Gordo, Industria Antolamenduko Ingeniaritzako graduduna
- Miriam Azurmendi Amenabar, Industria Automatika eta Elektronikako Ingeniaritzako graduduna
- Izaskun Usabiaga Ibarrondo, Informatikako Ingeniaritzako graduduna
- Ibai Sarasola Zubiria, Telekomunikazioetako Ingeniaritzako graduduna